


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## "Gerturatu den oro izan da ongi-etorria"

Urnietako Elutxetak botiralatutako sagardoa zerbitzatu du aurrerantzean. Erabakiaren arrazoiak azaldu dizkio Aiurri astekariari / 8-9

AIURRI

## Masters Txapelketa

Hastear da Azpiroz, Ansa II eta Barrenetxea IV erremontisten arteko ligaxka / 12

**Jabekuntza Eskola:**  
ikastaroak iragarri  
dituzte Lekaion,  
Saroben eta Xoxokako  
eskola zaharrean / 5

**Sahararen aldeko  
janari-bilketa  
solidarioa egiten  
ari dira Andoainen,  
hainbat saltokitan / 3**

Urtero legez aurten ere gure Sagardotegiko atea irekiko ditugu sagardo berriaz goza dezazuen ohiko menuaz lagundurik

Trenez etortzeko oso egokia,  
Urnietako Renfeko geltokitik  
4 minutura baikaude oinez



# ALTUNA

SAGARDOTEGIA - SIDRERIA

Txotx irekiera: Urtarrilak 23, osteguna

Erreserbak: Tlf: 943 55 49 17

Web: [altunasagardotegia.eus](http://altunasagardotegia.eus)

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA.

@ altuna\_sagardotegia



Elkarretaratzea deitu zuten astearte goizean, Donostiako Justizia Jauregian. AIURRI

## Amiantoak hil zuen Patxi Modino Escudero andoaindarra

Hil ostean, EAEko Auzitegi Nagusiak hainbat enpresa oinordekoei kalte-ordaina ematera kondenatu zituen

### Erredakzioa ANDOAIN

Sententziaren ondoren, Gizarte Segurantzaren Institutio Nazionalak (INSS) enpresa horiei % 30eko prestazio-errekargua ezarri zien. Hain zuzen, horren aurka Nervion Industries Engineering and Services enpresak helegitea jarri zuen, eta hori aztertu dute Donostian. Epaiketa egunean, biktimen aldeko Asviamie elkar-teak elkarretaratzea deitu zuen Justizia Jauregiaren atarian. "Amiantoak hiltzen du", "arazoa benetakoa da" eta "hiltzaile isila" leloak zituen pankartaren atzean jarri ziren.

Patxi Modino Escudero andoaindarra, biriketako minbi-ziaren ondorioz, 2020ko azaroan hil zen. Hil aurretik, Osakidetzan "Biriketako Kartzinoma ezkataduna" diagnostikatu zioten, eta Gizarte Segurantzaren Instituto Nazionalak (INSS) gaixotasun profesionalak eragindako Ezintasun Iraunkor Absolutua aitortu zion. Hil ostean, Auzitegi Nagusiak Cofivacasa, Sidor, Montajes Nervion, Arcelor Olaberria eta Jose Maria Ucin enpresak oinordekoei kalte-ordaina ematera kondenatu zituen.



AIURRI

## Hamabostean behin, Goikoplazan

Andoaingo Pentsiodunak hamabostean behin elkartuko dira: hurrengo hitzordua urtarrilaren 27an izango da, 11:15etan. Bestalde, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Gasteizko legebiltzarrean aurkeztu nahi duen lege-proposamenari babesa emateko sinadura-kanpainari ekin diote. Hamar mila sinaduratik gora bildu behar dituzte.

## SAREA

MARCE GARCIA ANDOAIN  
FACEBOOK BIDEZ ZABALDUTAKO MEZUA

### Zabaldutako mezua gertuko artean

Stop Desahucioeseko kideak honako mezua idatzi du, asteon: "El Economista hedabidearen lerroburua da: 'Bezeroek bankuei abusuzko klausulak erreklamatu beharko dizkiete epaiketara joan aurretik'. Eta, jarraian, honako hau ere bai: 'Justiziaren Eraginkortasunaren Lege berriak aurretiazko urrats hau egitera behartzen du demanda onartzeko'. Bankuak deitzen badizue, negoziatzea proposatzen badizue, ez ezazue haien proposamena onartu profesional batek alde aurretik berrikusi gabe, engainatu egingo zaituztelako, orain arte egin duten bezala. Lege hau negoziazio desorekatuak bermatzen dituen tranpa bat da, eta berriro ere iruzur masiboak bermatu ditzake Bankaren mesedetan".

## KOMUNITATEA

ANDOAINGO BATZOKIA  
ANDOAIN

### Barrikotea, Batzokian

Urte hasierarekin batera, Andoaingo Batzokiak barrikotea antolatu du Batzokian bertan. Datorren urtarrilaren 24an izango da, ostiralarekin, iluntzeko 20:30ean hasita.

25 euroen truke, sagardoa kupel txikitik eta sagardotegi menua dastatzeko aukera egongo da: bakailao-tortilla, bakailaoa, txuleta, postrea (gazta, irasagarra eta intxaurrek) eta kafea.

Izena emateko ondorengo telefono-zenbaki batera deitu edo idatzi behar da urtarrilaren 17a baino lehen: 688 803 665 (Txitxu) edo 652 774 883 (Eneko). Izen-ematea irekia da parte hartu nahi duen ororentzat.

## GUTUNA

ESTHER ISASA ANDOAINGO BURUNTZA AUZOKO ZENBAIT BIZILAGUNEN IZENEAN

### Ziako erreka lanen ondorioz, behar bezalako autobus-zerbitzurik ez dago Andoainen



Buruntza auzoko ikuspegia. AIURRI

2024ko martxoaren 18tik, Lurraldebus zerbitzuko hainbat autobusen ibilbideak aldatu egin dira eta ez dira Andoaingo zenbait geltokitan gelditzen, Andoaindik atera, A15 errepidetik joan eta Urnietaraino joaten baitira zuzenean.

Ondorioz, azken hamar hilabeteetan, adibidez, Buruntza auzoko bizilagunek Urnietako Ergoien Auzoko Xoxokako geltokiraino joan behar izan dute autobusa hartzera edota bertan jaitsi etxera joateko. Bide hori egiteko espaloirik ez dagoela kontuan izanda, bistan da zein arriskutsua den oinezkoentzat.

Ur Agentziaren zuzendaritzapean egiten ari diren lanak dira Ziako

errekakoak eta horixe da Andoaingo Udalak herritarrei jarri dien aitzakia gaiaren gaineko kezka adierazi den bakoitzean. Ohiko zerbitzua noiz berreskuratuko den galdetuta, berriz, hainbat data eta irtenbide aipatu dira, baina ez dira orain arte bete eta hamar hilabete beranduago, arazoak bere horretan irauten du.

Garraio publikoa erabiltzea sustatu nahi dela aldarrikatu bai, baina garbi dagoen kontu bakarra da aurreikuspen, ardura eta interes falta ikaragarria egon dela eta dagoela lan horretan parte hartzen ari diren erakunde guztien aldetik. Zerbitzu publiko hobe merezi dugu herritarrok.



andoainDARRA  
euskaraz

## IRITZIA

GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA BETERRI-BURUNTZA

## Faxismoa itxarongelan

Jada ez dugu urrutira joan behar gure inguruan urruneko ikusten genituen adierazpen faxistak aurkitzeko: etorkinen kriminalizazio eta seinalamendu zuzena Hernanin azaldutako pankartetan, Asteasuko errepideetako pintadak, eta gertu geratzen zaizkigun beste hainbat adibidetan.

Azkena, aste honen bueltan izan dugu Urnietan bertan, aldarrikapen faxistez josia agertu baita. Normalizatu ezin diren pegatina, pankarta eta mezuak dira faxista hauenak. Geroz eta gertuago dago faxismoaren mamua, horregatik, etorri baino lehen horma bat eraiki behar dugu. Faxistak Euskal Herritik ez pasatzeko mobilizatu behar gara.

Geroz eta gertuago dugun gerraren mehatxuarean, lan baldintzen aurkako eraso eta etxebizitzarako ezinezko sarbidearen testuinguruan, faxismoa ez da aukera bat. Faxismoa kapitalismoaren aurpegi totalitarioena da, langile klasea osatzen dugun kolektiboen aurkako mugimendu koldarra. Kapitalismoak sortzen dituen

bizi baldintza negargarriak eta kultura postmodernoarean aitzakiapean ezin ditugu ideia eta praktikak erreakzionarioak aukera gisa ulertu. Ezin ditugu faxistak eragile zilegi gisa onartu.

Gerrari dagokionez, ezin dugu normalizat jo, oligarkiaren interes politiko eta ekonomikoak babesteko milioiak eta milioiak bideratzea eta bitartean gure eros ahalmena geroz eta baxuagoa izatea. Gerrara ohitu zintezke, baina gerra egon badago.

Horiek horrela, Gazte Koordinadora Sozialistatik, lehen leerroan egoteko konpromisoa hartzen dugu, jendartean gero eta nabariagoa den beldur eta ezinegon horren aterabide bakarra mobilizatzea eta faxismoa kaleetan borrokatzea delako. Horretarako mobilizatuko gara urtarrilaren 25ean Bilbo eta Iruñean "Gerraren eta Faxismoaren aurka gazte langileok lehen lerroa" lemapean. Gorakada erreakzionarioa gelditzeko momentua orain delako, faxismoaren eta gerraren aurka kaleak hartu!

## KOMUNITATEA

SALESTAR IKASTETXEA URNIETA

## Gaztedi Astea Urnietan

Aurten ere iritsi da Salestarrak Magalera, kirola, kultura, ekonomia eta gizartearen sustatzen dituzten jardueraz betetako Gaztediaren Astea. Xakea, sudokuak, futbola... hainbat jarduera antolatu dira datozen egunetan. Urtarrilaren 31n, Don Boscoren heriotzaren urteurrenaren omenez, Salestarrak Magale Ikastetxeak aste berezi hau antolatu du, gure sortzailearen balioetan eta adibidean oinarritutakoa.

Egitarau osoa Aiurri.eus webgunean aurki daiteke, Komunitatea atalean. Honatx, askoren artean nabarmendu daitezkeen bi hitzordu: **Urtarrilak 22, asteazkena 10:30** Solasaldia Ignacio Tanco urnietarrarekin. Europako Espazio Agentziako (ESA) ingeniaria, Juice a Jupiter satelitea zuzentzen duen taldearen arduraduna da. Ignaciok, ESAn izandako esperientzia kontatuko digu.



Aurreko asteburuan Plazaola kaleko BMn egin zuten janari-bilketa. AIURRI

## "Elikatu itxaropen bat", janari-bilketa solidarioa

Hurria-Sahara elkarteak elikagai-bilketa egiten ari da hilabete honetan, udalerriko supermerkatuetan

Erredakzioa ANDOAIN

Errefuxiatuen kanpamentuetan egoera larrian bizi direla ohar-tarazi dute Andoaingo Hurria-Sahara elkarteak boluntarioek. Jakien bilketa ari dira egiten, hilabete honetan. Aurreko asteburuan Plazaola kaleko BMn izan eta gero, hilaren amaiera bitarte udalerriko honako saltoki hauetan elikagaiak dohaintzan eman ahal izango dira: Coviran (Karrika), Eroski (Ondarreta), Eroski (Zumea plaza) eta Telletxea (Bazkardo). Urtarrilaren 24an eta 25ean, berriz, Andoain-Urnieta mugan dagoen

Super Amaran egingo dute bilketa.

Ondoren, elkartearen adierazi dutenez, herriko ikastetxetan izango du jarraipena kanpainak. Otsailean, berriz, bildutako guztia antolatu eta Euskadiko Sahararen aldeko Karabanaren esku utziko dute.

Elikagaien zerrenda


Arroza, pasta, atuna, sardinak oliotan, azukrea, dilistak, garbantzuak eta babarrunak eta konpresak ere behar dituzte. Eta, aurten ere, glutenik gabeko elikagaiak bilduko dituzte.

## Eraiste-lanak, Ama Kandida etorbidean

Gudarien eta Ama Kandida etorbideetan Ziako errekararen ubideratze eta urbanizazio lanekin aurrera segitzen dute aspalditxo honetan, eta, besteak beste, Agiri Ote Naiz etxea eraisten aritu dira egun hauetan.



AIURRI



Uda bertan igarotzeko aukera dute basamortuko umeek. OPORRAK BAKEAN

## Oporrak Bakean 2025

Kanpainari hasiera emango diote asteburuan, Donostian, gonbidatu bereziekin: Aner Peritz bertsolaria, Jalifa Salem Mohamed Diasporako gazte sahararra, Fatma Labiad Frente Polisarioko Euskadiko ordezkaria, harrera familiak...

# Berriro martxan jarriko dute elizako ordularia

la hamarkada batez, matxuratuta egon da San Juan plazan dagoen San Miguel elizako kanpandorreko ordularia. Berriki, hitzarmena sinatu dute Udalak eta Elizbarrutiak. Besteak beste, ordularia berriro martxan jartzea jasotzen du txostenak

## Erredakzioa URNIETA

Udalerrri gehienetan ohikoa dena salbuespen bilakatu da Urnietan: San Juan plazan, burua elizdorrerantz altxaz gero, zein ordu den jakiterik ez dago. Urte luzez izan dira, egoera horretan, urnietarrak. Bada, antza denez, egoera hori aldatzear da. Izan ere, Parrokiak eta Udalak lankidetzahitzarmena sinatu dute eta, besteak beste, elizako erlojua martxan jartzea adostu dute. Hitzarmen berean jasota geratu da, antza, Atrioa erabilera publikorako berriro irekitzea, eta tenplua eta Cavaille-Coll organoa hainbat kultur ekitaldi egiteko



## Ez da ordularia konponduko dutela iragarri duten lehen aldia

2020ko otsailaren 25ean ez ohiko batzarraldia izan zen eta orduko alkate Mikel Pagolak hartu zuen hitza. Laguntza-lerroen aldaketa nagusiak aipatzerakoan, Urnietako Parrokiarekin lankidetzahitzarmena berri bat zabaldu zela iragarri zuen. Orduko hartan 23.000 euroko diru-laguntza iragarri zen, herriko elizaren erlojua konpondu eta mantenua bermatzeko erabiliko zena. Baina Udalak hori iragarri bazuen ere, ez zen inoiz hitzarmena aurrera atera. Eta arrazoiak ez dira inoiz aditzera eman, ez Udalaren aldetik ezta Urnietako Parrokiaren aldetik ere. Xabier Murua zen, 2020an, Urnietako apaiza.

Bost urte geroago, orduko promesa hura errealitate bilakatu daitekeela dirudi. Hitzarmen berrian, Udalak ohar bidez adierazi duenez, lehenengo urtean dirulaguntza 20.297 eurokoa izango da, eta gainerako urteetan 1.524 eurokoa. Urnietako alkate Jorge Seguradorek eta herriko apaiza den Mikel Ormazabalak sinadura darama hitzarmen berriak.

## Organoa berritzeko laguntza-eskaera luzatu du Urnietako Parrokiak

Cavaille-Coll organoa XIX. mendearen amaierakoa da eta hura zaharberritzeko laguntza eskatzen ari da Urnietako Parrokia. Instrumentuaren tutu bana babesteko aukera eskaini zaie herrikideei, hogeitabosna euroko ekarpena eginez. "Zuri esker, gure parrokiak historiaz eta musikaz beteriko lekua izaten jarraituko du.

# Udaberriko Jabekuntza Eskola, otsailean hasita

Lekaion, Saroben eta Xoxokako eskola zaharrea ikastaroak iragarri dituzte. Izena eman nahi dutenek urtarrilaren 20ra arte izango dute aukera, Bertan herritarren arretarako bulegoan, Gazte Informazio puntuan edo urnieta.eus webgunean

## Erredakzioa URNIETA

Honatx, Jabekuntza Eskolako sei aukerak laburbilduta:

### Irakurle eskola feminista

Esperientzia eta pentsamendu feministek sorturiko galderak, kezak, eta diskurtsoak izango dituzte eztabaidagai.

Egutegia: otsailak 5, apirilak 3 eta ekainak 5. 16:00-18:00.

Lekua: Lekaio. Euskaraz.

### Munduko emakume idazleen irakurketa-kluba

Errealitate soziokultural ezberdinetako egoera aztergai.

Egutegia: martxoak 6, maiatzak

### Barrez lehertzen

Arduragabeak, amargatuak, emakumeak ez diruditenak.... Ongi-etorri tailer honetara. Dinamizatzaileak: Beatriz Egizabal eta Paki Caballero.

Egutegia: otsailak 22 eta martxoak 1. 09:30-13:30.

Lekua: Sarobe. Elebitan.

### Oinarritzko brikolaje-tailerra

Kaladora maneiatazea, bisagrak jartzea...

Egutegia: otsailak 8 eta apirilak 26. 09:00-14:00

Lekua: Lekaio. Gaztelaniaz.

### Zoru pelbikoa indartzea

teoria eta ariketak uztartuz, geure egunerokoan baliagarriak egingo zaizkigun tresnak eskuratzeko.

Eguna: martxoak 17, 24, 31 eta apirilak 7. 18:00-19:30.

Lekua: Sarobe. Elebitan.

### Meditazioa eta barne mundua

Gure buruaren joan etorriak ulertzeaz gain, hauek sortzen dituzten korrante emozionalen kudeaketa landuko dute.

Eguna: martxoak 15, 29. 10:00-12:00.

Lekua: Xoxoka. Euskaraz.

Urnietako Udalaren esanetan, "ahalduntze prozesuen bidez



EAJ-PNV

## Eskualdeko jeltzaleen bilkura

Maria Eugenia Arrizabalaga Gipuzko Buru Batzarreko lehendakaria Hernanin elkartu zen, aurreko astean, Beterrri-Buruntzako alderdikideekin. Izan ere, EAJ-PNV alderdia erronka politikoei aurre hartzeko estrategia lantzen hasi da. Bilkuran izan ziren Urnietako Oihane Sanz eta David Rosco eta Andoaingo hainbat jeltzale: Gurutz Irigoras, Imanol Goenaga, Txitxu Ruiz edota Alex Huitzi.

## "Mundu digitalean" tailerra bertan behera geratu da

"Mundu digitalean, seme-alaben

zuzenduta zegoen baina bertan behera geratu da. Urnietako Udalak, prentsa ohar bidez azaldu zuenez, "gurasotasun positiboa" sustatzea dute helburu zuten.



Juanjo Urruzola, Elutxeta sagardotegiaren atarian. AIURRI

# “Segi dezala jendeak Elutxetara etortzen, daukagunarekin gozatzera”

**JUANJO URRUZOLA** ELUTXETA SAGARDOTEGIA

Hemendik aurrera, soilik, botilaratutako sagardoa egongo da Elutxetan, sagardo-ekoizpena etetea erabaki baitute. Urte gutxian zabalik izango dute, asteazkenetik igandera

nik mozten nuen; orain, moztuta ekartzen didate, hori ere erraztu egin dut. Ikaragarriko lana kendu dut.

Dena dela, jendea berdin-berdin etorriko zaigu, joan den igandean, adibidez, berrehun lagun hurbildu zitzaizkigun. Lana ondo egiten dugunaren seinale.

**Lau hamarkadatik gorako ibilbidea. Azkar esaten da.**

Aita hasi zen, guk lagunduta, pixka bat, gertukoentzat egiten, 1975. urtean-edo, gutxi gorabehera. Soldaduskatik bueltan, eta lantokitik bidalita, 1983 aldean, etxean gelditu nintzen. Gu maizterrak ginen, hemen lan handia egindakoak gara. Etxea erosita, ganadua kendu eta urte osoan sagardoarekin hasi nintzen. Gogorra da baserriko lana, baina segi eta segi. Sagardotegikoa ere bai, segi eta segi. Hementxe jarraitu dugu, 40 urtean. Nahiz eta gorabehera handiak eduki, bizitako pasadizoak bizita, lan txukuna egin dugu, gauza asko egin ditugu ondo eta gustura gaude egindako bidearekin.

**Nolako gogoratzen duzu 80. hamarkadako sagardozaletasuna egungoarekin alderatuta?**

Orain baina giro hobea zegoela dut gogoan. Lehen, etortzen zena sagardoa edatera eta jatera etortzen zen. Bi gauzetara. Orain, jatera? Bat ere ez. Orain, zurrutera, mozkortzera dator jendea. Askotan, deitu egin behar izaten diogu jendeari, jatera hurbil dadin. Edan, edan eta edan egiten dute gehienek: “Afaldu, denbora galdu”, diote. Oso oso desberdina da, garai batekoarekin alderatuta, eta ez naiz, soilik, gazte jendeaz ari... Kargu hartu behar izan diogu bati baino gehiagori, eta bada ordaindu gabe alde egin duenik ere. Gainera, sagardo-denboraldian edaten du jende gazteak sagardoa, batez ere, baina sa-soitik kanpo, ezer gutxi!

**Asteazkenetik igandera, irekita. Zerekin egingo dute topo herritarrek zuenera otordua egitera gerturatuta?**

Betikoa, hori ez dugu aldatuko. Genero ona eta goxo jarria, jendeak estimatzen duena.

**Aldaketak aldaketa, sagardoa ez da faltako, botiletan zerbitzatuko baituzue. Nork ekoiztuta?**

Astia garagako sagardotegi batetik ekarriko ditugu sagardo-botilak, aspalditik ezagutzen

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Urte berria ekitearekin batera hasi da txotx-denboraldia, eta, hainbat hilabetez, sagardoalez beteko dira Urnieta eta inguruak. Bada, guztia prest izateko, luze eta zabal egiten dute lan ekoizleek urte osoan. Alabainba, bestelako argazkia izango da aurrean herrian, ezusteko albistea bota baitzuen, orain aste batzuk, Elutxeta sagardotegiak: botiletan bai, baina ez da sagardoa txotxetik dastatzeko aukerarik izango, aurrerantzean, bertan, ekoizpena etetea erabaki baitute. Juanjo Urruzolarekin egin du hitzordua Aiurrik, nondik norakoak ezagutzeko.

**Denboraldi honetatik aurrera, zuegan ez da sagardoa txotxetik edaterik izango. Zer dela eta erabakia?**

Ondo nago, baina 65 urteko adina etorri zait, eta alabek jarraituko dute. Bada, hori bera komentatu zidaten, sagardoa egiteari uztea, botiletan ekartzea, nik samurtasuna eduki dezadan, baina baita beraiek ere, lanari jarraipena emateko. Haragia ere

dugu elkar eta konfiantzazkoak dira.

#### Zer gertatuko da zuen sagarrondo guztiekin?

Hortxe, nahi duenak biltzea dauzkala! Sagarrengatik dirulaguntzak ematen dituzte, baina guztia deklaratu egin beharra dago, lana da.

#### Duela pare bat urte iragarri zuen itxiera Setien sagardotegiak. Orain, zuek, kupelak. Joera hori hartzeko bidean al dira sagardotegiak?

Ba al da aurrera jarraitzeko jenderik? Etxe bakoitzari segida emateko ia ez da kiderik, eta zail samar dago lanerako pertsonak bilatzea. Bestalde, uzten al digute gure lana egiten? Oztupoak jartzen dizkigu administrazioak, estutu, estutu eta estutu.

#### Inflexio-puntuek zer hausnartua ematen dute. Ba al duzu hitzik gordeta urte hauetan guztietan hona gerturatu direnentzat eta zuen alboan lanean izan direnentzat?

Gurera gerturatu den oro izan da ongi-etorria. Aspaldiko bezero finkoak ere baditugu, garai batean guraso izandakoak eta orain beren bilobekin ere etortzen direnak. Ahoz aho iritsi izan da hona jendea, bai bezero moduan, bai lan egitera. Lekua, parajeak, etxe-giroa... "Berriro itzuliko gara" diote askok. Segi dezala jendeak Elutxetara etortzen, daukagunarekin goatzera!



"Gurera gerturatu den oro izan da ongi-etorria", dio Urruzolak. AIURRI

**ORAIN BERROGEI URTE PASATXO IREKI ZITUEN ATEAK ELUTXETA SAGARDOTEGIAK**

**SAGARDOA BOTILAN ZERBITZATUKO DUTE ETA JANARI-ESKAINZA BETIKOA IZANGO DA**

**ASTEAZKENETIK IGANDERA ZABALIK IZANGO DA URNIETAKO SAGARDOTEGIA**

## Urnietako ekoizleen irekiera-datak

Elutxeta eta Oianume zabalik daude, eta, datorren astean, Altuna eta Eularen txanda izango da

#### Erredakzioa URNIETA

Txotx garai berriaz goatzeko aukera izango da, laster, Urnietako lau sagardotegietan. Elutxeta eta Oianume izan dira txotx denboraldia zabaltzen lehenak, eta datorren astean izango da Altuna eta Eula sagardotegien txanda. Altunak datorren urtarrilaren 22an zabalduko ditu ateak eta Eulak, aldiz, 24an.

Aurten, bigarren urtez jarraian, Urnietako ekoizleen irekiera-ekitaldia antolatu du Udalak. Urtarrilaren 22an izango da, asteazkenarekin, Oianume Sagardotegian, eguerdiko 13:00ean hasita. Aurtengo gonbidatu berezia Ignacio Tanco herrikidea izango da. ESAko (Europako Espazio Agentzia) eguzki-sistema arloko burua da eta urnietarraren eskutik zerbitzatuko dute ekoizleek lehen



Sagardoaren sektoreko ordezkariak Donostiako Konstituzio plazan egindako aurkezpena. EUSKAL SAGARDOA

# Denboraldiaren aurkezpena, lurralde guztiek bat eginda

Iazkoa baino txikiagoa izango da aurtengo txotx denboraldiko uzta: Euskal Sagardoaren barruan 1,3 milioi litro egin dituzte 46 sagardotegiek, bertako 250 sagastietako 2 milioi kilo sagar erabilita

## Erredakzioa DONOSTIA

Txotx eginda, hemen da aurtengo sagardotegi-denboraldia. Kupelen irekiera aurkezteko, Donostiako Konstituzio plazan bildu ziren sagardo-sektoreko ordezkariak, joan den asteko ostegun goizean egindako ekitaldian. Bertan, sektoreko bozeramaileek zein ordezkari politikoei hartu zuten hitza, besteak beste, Maite Retolaza Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren lehendakariak eta Unai Agirre Euskal Sagardoa Deituraren koordinatzaileak.

Bost kupel plazaren erdian: Araba, Gipuzkoa, Iparraldea, Nafarroa eta Bizkaia, Jatorri Deitura Euskal Herri osora zabaltzeko bidean, sektoreak "pau-so bat gehiago" eman duenaren erakusle, Agirrek azaldu bezala. Hala, aurkezpenean bertan iragarri zuten ordezkariak "Eu-

roeskualdeko laguntza" izango dutela datozen 18 hilabeteetan sagarraren, sagardoaren eta sagardotegiaren Plan Estrategikoari "gorputza emateko", Malus Bat izenpean.

## Izaera "handiko" uzta, aurtengoa

Sagardoaren ezaugarrien nondik norakoak azaldu zituen Retolazak: iazkoarekin alderatuta, uzta urriagoa izan arren, Euskal Sagardoaren barruan 1,3 milioi litro ekoitzi dituzte 46 sagardotegik, bertako 250 sagastietako 2 milioi kilo sagar erabilita. "Kantitate gutxi egin denez, gorputz dextentekoa aterako da, usaintsua. Nik uste bailaraz bailara aldatu egingo dela, bakoitzak bere ukitua emango diolako". Neguko hotz eskasiak eragina izan dezake horretan eta, ondorioz, oro har, 2023ko uzta baino % 60 sagar gutxiago izan da Euskal Herriko sagastietan. Guztira, 46 sagardotegik egin dute ekoizpena: Araban bat, Bizkaian hiru eta, Gipuzkoan 42, Euskal Sagardorako sagarra egiten duten 250 sagargilerekin eta 500 hektarea erabilita.

## Tokian tokiko aurkezpenak, datozen egunotan

Askotariko hitzorduak izan dira egunotan, sagardo-denboraldiaren irekieraren bueltan. Hala, bi ekitaldi izango dira eskualdean: ostiral honetan, hilaren 17an, Gaztañaga sagardotegian, herriko txotx-denboraldiaren irekiera-ekitaldia egingo dute, bertsoek eta musikak girotuta. Ildo berean, gauza bera egingo dute Urnietan ere, urtarrilaren 22an, asteazkenarekin, Oianume Sagardotegian, eguerdiko 13:00ean.



Urnietako  
udala







Andoni Alvarez (Andoaingo alkatea), Ainhoa Aiertza (Buruntza Kultur Elkarte), Ion Beloki (irekierako aurtengo protagonista), Axier Gaztañaga (Gaztañaga sagardotegia) eta Jon Mikel Arruabarrena (Mizpiradi sagardotegia). AIURRI

# Txotx-irekiera Andoainen, ostiral honetan hasita

Buruntza Auzo Elkarteak, Punttuka Bertso Eskolak eta Gaztañaga eta Mizpiradi sagardotegiek, Andoaingo Udalaren laguntzarekin, antolatu dute ekitaldia. Txandaka egingo dute irekiera, beraz, datorren urtean, Mizpiradin izango da

**Xabier Lasa** ANDOAIN  
Gaztañaga sagardotegian, ostiral honetan, iluntzeko 20:00etatik aurrera egingo dute txotx denboraldiaren irekiera-ekitaldia. Bertsoek eta musikak girotuko dute ekitaldia.

Txandaka izango da txotx garairearen irekitze ekitaldia, urtez urte. Aurten Gaztañagan, eta, Mizpiradin, datorren urtean. Andoni Alvarezk (Andoaingo alkatea), Ainhoa Aiertzak (Buruntza Kultur Elkarte), Ion

Belokik (irekitze ofizialeko protagonista), Axier Gaztañagak (Gaztañaga sagardotegia) eta Jon Mikel Arruabarrenak (Mizpiradi sagardotegia) ekimen berriaren aurkezpena egin zuten astelehen arratsaldean.



Aire Aire musika taldea. AIURRI

## Musika eta bertsoa, irekiera-ekitaldiko osagaiak


Kultugileek protagonismo berezia izango dute Andoaingo lehen txotx irekiera-ekitaldian. Ion Beloki izango da denboraldiari hasiera emango diona, eta gertu izango ditu Punttukako kideak. Sebastian Lizaso bertsoan ariko da eta Aire Aire musika taldeak kontzertua egingo du. Honako bi telefono hauek jarri dituzte antolatzaileek, aukeran, afariko txartela eskuratzeko: 630122562 edo 943591968.



Sebastian Lizaso, Nerea Elustondorekin batera. AIURRI

# Txotx 2025 GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albistek... Atal berezia webgunean  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia



Argazkian, Fernandez filmaketa-taldeko zenbait kideekin ageri da, Bukowski tabernan egin zuen aurkezpenean, joan den urteko irailean. Atzean, ezkerretik hasita: Belen Cruz, Leire Zinkunegi, Arrate Fernandez eta Grace Kelly Sandoval. Aurrean: Naiara Olalde, Amaia Irazabal, Imanol Arabaolaza, Eñaut Gantxegi, Asier Hernandez, Dorleta Urretabizkaia, eta, Amaior. AIURRI

# "Amets hegalarikiak", Fernandezen berriena

Arrate Fernandez "Amets hegalarikiak" eta Iratxe Fresneda arrigorriagatarraren "Errotatiba" euskarazko film laburrekin emanaldi berezia antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Bastero Kulturgunean izango da, urtarrilaren 24an, 12:00tan hasita

**Xabier Lasa** ANDOAIN

La Salle Berrozpe, Aita Larramendi Ikastola eta Leitzaran institutuko bigarren go Batxillergoko ikasleentzat proiektatuko

dituzte bi filmak eta, ondoren, egileekin solasean aritzeko aukera izango da. Bi zinegileek beren ibilbideen eta eskarmentuen berri ikasleei ematea du helburu

ekimenak, eta horretarako, ekitaldian izango dira Iratxe Fresneda, Arrate Fernandez eta bere filmean parte hartu duen Lur Usabiaga aktore eta musikaria.

teen ginetik, mezu baikorra transmititu" nahi duela filmak gaineratu zuten, "benetako adiskidetasunaren balioaz sakonduz horretarako".

Fernandezek *Amets hegalarikiak* filmean zuzendari, gidoiari eta ekoizle exekutibo gisa jardun du. Guztira, ehun bat pertsonak osatu dute lantaldea. Aktoreei dagokionez, aldean, aipatzekoak dira, besteak beste, Amaia Irazabal, Amaia Ruiz de Galarreta, Jon Plazaola eta Arkaitz Gartziandia. Bestalde, honako hauek azaltzen dira modelo gisa: Amaia Lizarralde, Olatz Beobide, Belén Cruz, Dorleta Urretabizkaia, Nova, Maikee eta Leire Zinkunegi, guztiek ere Tytti Thusberg izan dute moda diseinatzaile. Filmaren fitxa teknikoarekin jarraituz, esan behar da Maru Solores dela bere zuzendari laguntzailea, Rosa Tolosa ekoizlea, Javier Montes ekoizle laguntzailea, Joseba Ariznabarreta argazki zuzendaria, Helena Nuñez muntatzailea, eta, Ama Etxeberria diseinu grafikoko arduraduna. Guztira, zinemagintzan aritzen diren ehun bat profesionalak eta langilek osatu dute lan-taldea; nor berea jarri du filmaren erroldajein zein ondorengo muntaietan.

*Amets hegalarikiak* film laburra jaialdietan aurkezteko asmoa zuela esan zuen Donostiako aurkezpenean Fernandezek. Euskara eta zinema batzen dituen Lekeitioko Euskal Zine Bilera jaialdia izan zen lehenbizikoa, eta promozio-eginkizun horretan jarraitzen du, egun.

## Zinemagintzan pasioz murgildutako sortzailea

Arrate Fernandezek lau film labur dauzka eginak aurretik: *Ekintzen ispilu Gardena* (2003), *Arbasoen argi iraunkorra* (2005), *Maddi eta Patxi* (2016) eta *Begi ninien koreografia* (2018). Aldi berean, 2022an, Euskal Herriko hainbat emakumeren ahotsen eskutik azken 40 urtetako erradiografia egiten duen *Gure Hots* dokumentala sortu zuen.

Joxema Langarak 90eko hamarkadan zuzentzen zuen Andoingo gazteen antzerki-taldean ekin zion kulturagintzako ibilbideari Fernandezek, eta politikari, kultur sormenaren bidea urratzen eta trebatzen joan da geroztik, Andoingo Kanalón telebistan eta ETBn hasieran, gidoigintzara, irratigintzara eta

## "Amets hegalarikiak": giza harremanak jo-puntuak

Arrate Fernandez Itsaso (Andoain, 1973) zinegileak iazko irailean aurkeztu zuen 19 minutuko iraupena duen *Amets hegalarikiak* laburmetraia. Donostiako Bukowski tabernan egin zuen lehen erakustaldia, filmean modu batera edo bestera ekarpena egin duten zinemagintzako hainbat kideekin batera, hain zuzen.

Fernandezek Donostiako ikustaldian adierazi zuenez, istorio batetik tiraka, hainbat pertsonaiaren arteko giza-harremanak eta beraien joan-etorri emozionalak kontatzen ditu *Amets hegalarikiak* film laburrak; tartean, zoritxarrez aktualitate handiko gizarte arazo larri diren bullying-a edota suizidioa jorratzen ditu, modu gordinean.

Bere hitzetan, "gizakien arteko harreman gora beheratsuak, gizakien nahasmen emozionalak eta sentimendu kontrajarriak, laguntasuna... dabilta hegan filmean, uneoro". Nolanahi ere, eta "bizitza bizitze hutsak gizakiei eragiten dizkien buruhaus-



Arrate Fernandezek, bost film labur egin ditu dagoeneko. "Amets hegalariai" da bere azken lana. AIURRI

ikus-entzuketara bideratutako makina bat ikastarotan murgilduz ondoren...

Pasio du zinegintza, eta denborarekin eta ekinaren ekinez ikasi du baliabide eskasekin (finantziarioa, batik bat) gauzatzeko buruan zeuzkan gidoiak. *Amets hegalariai* azken filmean, adibidez, zuzendari eta gidoigile ez ezik ekoizle exekutiboa (finantziarioaz eta lan-taldea kudeatzeaz arduratzen den pertsona) ere izan da.

Hezkuntzaren arloan ari da lanean, gaur egun, eta zaletasun gisa du sormen-lana. Urrutira gabe, *Amets hegalariai*, aurrez egindako *Gure Hots* dokumentala Primeran plataforman emititzearen truk ETBk emandako diruarekin finantzatu du. Alde horretatik, Fernandez oso kritikoa ageri da administrazio publikoek edo horien azpian dauden erakunde desberdinek ikus-entzunezkoen munduan

**URTARRILAREN 24AN  
BI FILM LABUR  
IKUSIKO DITUZTE  
BATXILERGOKO  
IKASLEEK**

bidea egin nahi duten euskal kulturagileekiko daramaten dirulaguntzen politikarekin eta irizpideekin. Sorkuntza euskaraz eta euskaratik egin nahi duten kulturagileekin sentiberatasun berezirik ez duela sumatzen aitortzen du Andoaingo zuzendariak. Are gehiago, gabezia hori gainerako euskal kulturagile eta kultur-eragileengana zabaltzen dela gaineratu du Fernandezek, "Badute benetan meritua euskal munduko hainbat pertsonak, zinean, antzerkian, dantzan nahiz beste arte-diziplinetan murgilduta dabiltzanek, gizarte honi beren kultur ekarpena egiteko apustua egin baitute, nahiz bizimodu nahiko prekarioan bizi behar horretarako".

Gogoeta horretatik sakonduz egin du tiraka *Amets hegalariai* hain zuzen, Fernandezek esanetan: "Kamera aurrean kulturagile ugari jarri nahi izan ditut, aktoreak, dantzariak, musikariak, moda diseinatzaileak, artetzaileak.... Horiengana keinu konplizea egin nahi izan dut, gorazarre egin nahi izan diet, trabak traba, pasioz bizi duten horri tinko eusten diotelako".

### "Errotatiba", Egin egunkaria itxi zutenekoa

Iratxe Fresneda Delgado (Arrigorriaga, 1974) zuzendari eta EHUko ikus-entzunezkoen irakasleak zuzendu duen *Errotatiba* film laburra da Basteron ikasleek ikusi ahal izango duten bigarren ikus-entzunezkoak. Baltasar Garzon epailaren aginduz 1998an poliziak itxi zuen Egin egunkariaren errotatiba du ardatz filmak.

2024an aurkeztu zuen filmak bi helburu nagusi bete nahi dituela adierazi berri du Fresnedak; batetik, "lanbide jakin batzuen eta gertakari historikoen desagertzearen eta ahanzturaren" gaineko hausnarketa zabaldu, eta, bestetik, "munduan egoteko modu baten galera erregistratu". Bestalde, *Errotatiba* filmatzea "inoiz gertatu behar ez zen gure historiaren pasarte bati aurrez aurre begiratzea izan" dela aitortu zuen.

**"AMETS  
HEGALARIK"  
FERNANDEZEN  
BOSGARREN FILM  
LABURRA DA**



Lehen hiru hilabeteko programazioa aurkeztu berri dute. UDALA

## Abiatze da "Bastero-kafe" kultur ziklo berria

Urteko lehen hiruhileko programazioaren aurkezpenean egin dute iragarpena

### Erredakzioa ANDOAIN

Bastero Kulturguneak berritasuna dakar, urteari hasiera ematearekin batera. Lehen hiruhileko programazioak dakar, zehazki, berritasuna: "Bastero-kafe" izenekoa. Kafe-antzikietan oinarrituta, ikusleek mahai baten bueltan ikuskizunaz gozatzeke aukera izango dute, kontsumizio bat hartzen duten bitartean. Emanaldi horiek guztiak Bastero Kulturguneko Ekitaldi aretoan izango dira.

"Bastero-kafe" kultur zikloko lehen hiru hitzorduak:

### Urtarrilak 24, ostirala

"Musika akuarelak": Arkaitz Mendoza eta Naroa Intxausti.

### Otsailak 21, ostirala

Kanbalatxe Tango taldea.

### Martxoak 28, ostirala

'Ez dogu zor ezer', jazz musika: Ainara Ortega eta Joaquin Chacon.

## "Bizitza ikasi", hezkuntza publikoaren aldeko kanpaina

Udalerriko hezkuntza publikoaren aldeko kanpaina abiarazi du Andoaingo Udalak

### Erredakzioa ANDOAIN

Aurki abiatuko da 2025/26 ikasturtean hezkuntza alorreko hainbat etapatan matrikulatzeke kanpaina. Andoainen hezkuntza publikoaren eskaintza zabalda da:

- Galardi Haurreskola: 0-2 urte bitarte.
- Ondarreta Herri Eskola: 2-12 urte bitarte.
- Leizaran institutua: 12-16 urte bitarte (Lanbide Heziketako aukera), Helduen Hezkuntza (18 urtetik gora).
- Oinarrizko Lanbide Heziketa (15-18 urte bitarte).

Udalak "andoaindarrak animatu nahi ditu herrian dugun aukera gertutik ezagutu eta bertan matrikulatzera".





Ezkerrean hasita, lehena, Manu Santos urnietarra. BURUNTZALDEA IKT

## Gipuzkoako Open Master txapelketan, lehan

**IGERIKETA** Buruntzaldea IKT taldeko Manu Santos urnietarra 200m eta 100m librean aritu zen Eibarren

### Erredakzioa URNIETA

Igeriketan ere bada master mailan lehan aritzeko aukera. Urrutira joan gabe, aurreko larunbatean, Eibarren antolatu zuten Gipuzkoako Open Master txapelketa eta bertan izan ziren Buruntzaldea IKT taldeko lau ordezkari: Manu Santos urnietarra, Miren Bardaji, Borja

Apeztegia eta Itsaso Tolosa. Taldeka eta banaka aritu ziren lehan. 50-54 urtekoen artean, Manu Santosek taldeko 3 marka berri ezarri zituen: 200 librean (3:09,19), 100 librean (1:23,25) eta 50 librean (40,46).

Igeriketaz gozatzeko arratsalde paregabea izan zen klubeko igerilarientzat.



Mikel Erro. UKE

## ESKUBALOIA Urnieta KE taldeko seniorrak, garaile

Urteari hasiera biribila eman diote Urnietako eskubaloit taldeek. Lehen mailan, gainera, Euskal Ligara igotzeko aukerak gertu dituzte.

2. mailakoek, horrela jarraituz gero, lehen fasea lau sailkatuen artean amaitzeko aukera dute.

### 1. maila:

34 Urnieta Artola Harategia.

31 Urola E.K. Laztimendi.

### 2. maila:

28 Urnieta Guria Jatetxea.

19 Erreka Bergara K.E.



Akerbeltz Haundi infantil mailako taldeak partida bakarra galdu du ligan. AIURRI

## Azken jardunaldian, lehen bi sailkatuen arteko partida

**SASKIBALOIA** Allurralden, elkarren aurka ariko dira Easo Basket eta Akerbeltz Haundi taldeak

### Erredakzioa ANDOAIN

Infantil mailako Akerbeltzek igoera ziurtatuta dauka:

### SASKIBALOIA

PARTAIDETZA LIGA, 3. MULTZOA

### SAILKAPENA

1	EASO BASKET	(9-0)	18 p.
2	AKERBELTZ	(8-1)	17 p.
3	URNIETA	(5-4)	14 p.

### Azken partida, larunbat honetan

Akerbeltz Haundi taldeak partida bakarra galdu du bederatzi jardunaldietan, hain zuzen, Easo Basket Ernio taldearen aurka. Eta, gauzak zer diren, bien arteko lehiak itxiko du ligaxka.

Larunbat honetan izango da Allurralden, goizeko 09:00tan hasita.



Euskalduna Andoaindarra taldeko kideak, artxiboko irudian. AIURRI



Andoingo txirrindularia. AIURRI



Nazioarteko proban aritu zen seikotea. BURUNTZALDEA IKT

## Garaipena eta lehen postua, lehen itzulia amaitzear denean

**FUTBOLA** Gorengo Erregional mailako taldeak lidergotza eskuratu du urteko lehen jardunaldia amaitu berrian

**Erredakzioa** ANDOAIN

Lehia estua dago Euskalduna, Santo Tomas eta Roteta taldeen artean. Lehen itzulia amaitzear da eta gaikaldean lehia bizia dago. Urteko lehen partidaren, etxeakoak nagusitu ziren Ubitar-ten: 2-0 irabazi zioten Sanpedrotarrari. San Tomas lizeoak, aldiz, 3-1 galdu zuen Danenaren aurka.

FUTBOLA	
GORENGO MAILA, GIZONEZKOAK	
SAILKAPENA	
1 EUSKALDUNA	30 p.
2 ROTETA	28 p.
3 SAN TOMAS LIZEOA	28 p.

Allerru-Euskalduna partida-ekin amaituko da lehen itzulia (larunbata, 17:50).

## TXIRRINDULARITZA MTB proba Asteasuko Elizmendi auzoan

Aurrera doa haur eta gazteen mailako prestaketa eta, laster, errepideko denboraldiari hasiera emango diote. Baina badira jarduera gehiago txirrindulari-tzan eta horietako bat MTB mendi bizikleta da. Laugarren urtez jarraian, Aiztondo eta Danena elkarteek antolatuta, kirol jarduera zail horretan trebatze-ko aukera izan dute gazteenek. Orotara, benjamin, alebin eta infantil mailako 250 partaide elkartu ziren Asteasun.

## Erakustaldi bikaina egin zuen Oihan Matutek, Gabonetan

**IGERIKETA** Donostian Euskal Herriko eta nazioarteko kirolarien pare aritu zen andoaindarra

**Erredakzioa** ANDOAIN

Gabonetan izan zen igeriketa-proba eta Buruntzaldea IKTK eman du balentriaren berri: "Bereziki aipatzekoa izen zen Oihanen jarduna. Tximeleta eta bular probetako 50 metrokoetan marka pertsonalak egiteaz gain, igerileku luzeko 15 urteko bi errekor berri ezarri baitzituen: bata, 50m

bular proban (34,48); bestea, lau estiloetako 200 metrokoan, errekor berria ezarriz (2:27,84)". Buruntzaldea IKT klubeko sei igerilari aritu ziren egun hartan, Donostiako nazioarteko jardunaldian: Garazi Etxeberria, Iker Gorostegi, Miren Sarobe, Oihan Matute andoaindarra, Ibon Elo-la eta Mayi Gorostegi.

## Abiatzear da Kutxabank Masters Txapelketa, Galarretan

**ERREMONTA** Lehen partida, larunbat honetan, Ansa II eta Azpirozaren artekoa. Barrenetxea IV da hirugarren hautagaia

**Erredakzioa** URNIETA

Azpirozek 30-16 irabazi zion Jaberari, aurreko asteburuan, Kutxabank Masterseko atarikoan. Ligaxkan, Ansa II. a eta Barre-

netxea IV izango ditu aurkari. Lehen partida larunbat honetan izango da Ansa II eta Azpirozaren artekoa Finala otsailaren 8an jokatu da.



Azpiroz, Ansa II eta Barrenetxea IV, txapelketaren aurkezpenean. ORIAMENDI

## FUTBOLA Segura talde gogorraren aurka ariko da Urnieta KE

Emakumezkoen Gorengoa abiatu da eta Urnietak 1-4 irabazi zuen Mondragonen aurka. Asteburuan Segura-Aizkorri taldearen bisita izango dute Urnietan. Igandean izango da partida, 11:30ean hasita. Segurak 11 jardunalditan 5 garaipen eta 6 berdinketa lortu ditu.

**Kutxabank MASTERS**

**Urtarrilak 18**  
Larunbata

16:30etik aurrera  
Galarreta Jai Alai Hernani

1. Partida (3 Setera)  
**GOIKOETXEA V • ZUBIRI vs AIESTARAN VII • MARTIRENA**

Kutxabank Masters Txapelketa (30 tanto)  
**ANSA II vs AZPIROZ**

3. Partida (3 Setera)  
**SEGUROLA • BARRENETXEA IV vs EZKURRA II • LARRAÑAGA**

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## HITZALDIA

## URNIETA Eguzki-sistema

Igancio Tanco urnietarra, Elhuyar Fundazioko Guillermo Roa eta Aranzadiko Virginia Garcia.  
Urtarrilak 22, asteazkena.  
19:00, Sarobe.

## ODOL-EMAILEAK

## URNIETA Urteko lehen saioa

Urteko lehen odol-emate txanda Gaztelekuan. Interesa dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute egunean bertan txanda hartzeko: 943 00 78 85.  
Urtarrilak 22, asteazkena.

## ANTZERKIA

## ANDOAIN "Miñan"

Ibrahima Balde eta Amets Arzalluzen liburua oinarritzat harturik, Arte-Dramak ekoiztuta.  
Urtarrilak 31, ostirala.  
19:30, Bastero.

## URNIETA "El caso camping"

Misterioa eta suspentsea Kemen teatro konpainiaren eskutik.  
Urtarrilak 26, igandea.  
19:00, Sarobe.

## PAILAZOAK

## ANDOAIN "Ostirala iritsi da"

Porrotx, Marimotots eta lagunak.  
Urtarrilak 26, igandea.  
11:00, Bastero.



Nunk musika taldea. NUNK

## ANDOAIN Nunk taldearen kantu berrienak entzungai

Calathea eta Viewer Bizkaiko metal taldeekin batera ariko dira. Nunk taldeak aurreko udazkenean disko txikia aurkeztu zuen eta larunbat honetan zuzenean ikusteko aukera izango da. Taldekideen artean dira Unai Garcia andoaindarra eta Aitor Amonarriz billabonatarra.  
Urtarrilak 18, larunbata. 21:30, Andoingo Gaztetxea.

## MUSIKA

## ANDOAIN Janus Lester

"Lore" diskoaren aurkezpena.  
Urtarrilak 17, ostirala.  
19:30, Bastero.

## ANDOAIN "Musika akuarelak"

Arkaitz Mendoza, Naroa Intxausti.  
Urtarrilak 24, ostirala.  
19:30, Bastero.

## ANDOAIN Kontzertua Gaztetxean

Gaizkiñe, Josetxu Piperrak eta Modus Operandi zuzenean.  
Sarrerak: Keinu, Txuribeltz.  
Salgai, urtarrilaren 16tik aurrera.

## BARRIKOTEA

## ANDOAIN Batzokia


Hilaren 17an amaituko da izen-ematea: 688 803 665 (Txitxu), 652 774 883 (Eneko).  
Urtarrilak 24, ostirala.  
20:30, Batzokia.

## ERAKUSKETA

## ANDOAIN Mikel Laboa gogoan

"Izan liteke konstelazio, izan gabe izar" izenekoak.  
Bastero, erakusketa-gela.  
Azken eguna: Urtarrilak 31.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Conclave

Urtarrilak 18, larunbata. 19:30.  
Urtarrilak 19, igandea. 19:30.  
Urtarrilak 20, asti. 17:00, 19:30.

## Klara eta hazi magikoen misterioa

Urtarrilak 18, 19.  
17:00.

## Las vidas de Sing Sing

Urtarrilak 25-27, ohiko ordutegian.



## SINOPSIS

## Conclave

Zuzendaria: Edward Berger. Aktoreak: Ralph Fiennes, John Lithgow, Stanley Tucci, Isabella Rossellini, Sergio Castellitto, Brian F. O'Byrne, Lucian Msamati... Herrialdea: AEB (2023). Hizkuntza: Gaztelania. Generoa: Drama, intriga. Iraupena: 120 m.

## Eliza eta boterea uztartzen dituen filmaren estreinaldia

Aita Santu Gorenaren ustekabeko heriotzaren ondoren, Lawrence kardinala munduko erritual sekretu eta zaharrenetako baten buru izateko arduraduna izango da: Aita Santu berri baten hautaketa. Eliza Katolikoko buruzagi boteretsuenak Vatikanoko aretoetan elkartzen direnean, Lawrence konspirazio konplexu batean harrapatuta geratzen da, eta, aldi berean, Elizaren oinarriak astindu ditzakeen sekretu bat aurkitzen du.



## Aiurrikide izatea %30 merkeago

Aiurrik lehenatasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, zerga onurak ezarriko zaizkizu 2024ko jardueran Aiurriari egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota %30 merkatuko zaizu errenta aitortpena egiterakoan.



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI  
KIDE**





OLAGAIN AUZOKO SANTA KRUTZ ELKARTEA

## Urteko batzarra Olagain auzoan

Datorren urtarrilaren 18an, larunbatarekin, eta arratsaldeko 16:00tan hasita, urteko batzarra deitu du Andoaingo Olagain auzoko Santa Krutz elkarteak. Joan zen abenduaren 31n agur esan zioten urteari, egoitzan bertan. Bizilagun ugari elkartu zen eta hitzordua giro ederrean igaro zen. Larunbat honetan, urteko balantzea eta programa aurkeztuko dituzte.

## Ireki dute Antia literatur lehiaketara aurkezteko epea

Zabalik da, jada, On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketara lanak aurkezteko epea. Martxoaren 14ra bitarte izango dute aukera parte hartu nahi dutenek beren idazlanak bidaltzeko. Beste urte batzuetan bezala, adinaren arabera kategoriatan banatu du Urrietako Udalak literatur sariketa: haurrena, gazteena eta helduena.

## Gaizkiñe, Josetxu Piperrak eta Modus Operandi, Andoainen

Gaizkiñe Andoaingo talde mitikoa, Josetxu Piperrak eta Modus Operandi zuzenean ariko dira Andoaingo Gaztetxean, datorren otsailaren 22an. Ikusle ugari elkartu daitezkeela eta, aurretik sarrerak erosteko aukera ahalbidetu dute antolatzaileek. Keinu dendan eta Txuribeltz tabernan, ostegun honetan hasita.



AIURRI

## Denda Berriren Batzar Orokorra

Ohiko Batzar Orokorrerako deia luzatu Denda Berri Urrietako pentsiodunen eta erretiratuen elkarteak. Hilaren 25ean izango da Elkarteen Etxean, 17:30ean hasita. Honako hau izango da gai-ordena: 2024eko balantzearen aurkezpena eta onarpena, hala badagokio; 2025erako jarduera eta aurrekontua; galde-erreguak.

## Ekhi Ormaetxea 20 urteko andoaindarra, "El Conquis"-en

Aste honetan abiatu da ETB2 katean "El Conquistador del Fin del Mundo" telebista lehiaketaren 21. denboraldia, eta partaideetako bat andoaindarra da: Ekhi Ormaetxea Etxeberria. Aurtengoan parte hartuko duten 37 lehiakideetako da andoaindar ikaslea. Futboleko jokatzeko du Euskalduna taldean, defentsa postuan.



ETB

## ZORION-AGURRAK



URNIETA  
**Arnitz**  
Urtarrilaren 12an hamahiru urte bete zenituen. Etxekoekin egun oparoa igaro zenuelakoan. Zorionak!



ANDOAIN  
**Eukene**  
Urtarrilaren 10ean 15 urte bete zenituen. Egun polita igaro zenuelakoan. Askok maite zaitugu! Etxekoak.



ANDOAIN  
**Beñat**  
Urtarrilaren 18an bi urte beteko dituzu. Muxu haundi bat amona Begoña eta aitona Mikelen partetik. Ondo pasa!!!



ANDOAIN  
**Maren**  
Urtarrilaren 18an lau urte! Azkenean heldu da eguna. Muxu pilo bat Oihan eta etxeko guztien partez. Askok maite zaitugu!

### www.aiurri.eus

Sar zaituzte "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan.

### diseinua@aiurri.eus

Aiurriko posta elektronikora idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Arantzibia plaza 4-5, behea

Etor zaituzte bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

# ZOZKETA

## XIBEROAKO

### IKASTOLEN ALDE

ARBAILA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

**Astekariko harpidedunen artean ZOZKETA EGIN ETA GERO**

**Irabazlea: Anttoni Garmendia Sorrondegi**

# ZOZKETA

## Erremonteaz gozatu nahi?

**AiurriKIDE bazara,** astero-astero, sarreren zozketan parte har dezakezu.

Idatzi "Erremontea", zure izen-abizenak eta bidali:

- **Whatsappa:** 619 163 537.
- **E-posta:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

**Okm:** batzen gaituen distantzia

---

Egin zaituzte AiurriKIDE



Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakaria, Eider Mendoza Ahaldu Nagusia eta Xabier Olano Altzoko alkatea. ALDUNDIA

# "Ipuskoa. izanetik izena 1025-2025"

Gipuzkoa hitza jasotzen den lehen dokumentu idatzia 1025ekoa da, eta efemeridea baliatuta ospakizun-sorta iragarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Berriki aurkeztu dute egitaraua Aldundiko eta Altzoko udaleko agintariek



Agiri historikoa duela mila urtekoa da. AIURRI

## Erredakzioa ANDOAIN

Idatzitako historiaren arabera, Gipuzkoako lehen aipamena 1025ekoa da, eta efemeride biribila baliatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi-sorta iragarri du. Urtemugaren oinarria Erdi Aroko eskuizkribu bat da eta, bertan jasotakoaren arabera, 1025. urtean Ipuscuako jaun Gartzia Azenarizek eta haren emazte Gayla de Iputzak Altzo udalerrian kokatzen den Olazabaleko Salbatore monasterioa eman zioten dohaintzan San Juan de la Peñako zenobioari, bere babespean zeuden beste hainbat lurrekin batera. Hori dela eta, orain dela mila urteko Ipuscua eta gaur egungo Gipuzkoa hitzak uztartuz, *Ipuscua*. *Izanetik izenera 1025-2025* izenburua ipini dio milurtekoari Foru Aldundiak. Goiburu horrekin, hainbat ekintza antolatzen dihardute foru erakundeak, Batzar Nagusiek eta Altzoko Udalak.

## Eider Mendoza, Ahaldu Nagusia

Egitasmoa aurkeztu zuen hegabideen aurrean: "Esan ohi dugu izena duen orok baduela izana. Efemeride historiko honek adierazten du duela hamar mende dagoeneko, izan, baginela. Horregatik, milagarren urteurrenak aukera ederra eskaintzen digu gipuzkoarroi gure buruaz gogoeta egiteko. Ez bakarrik gure lurraldearen garaian garaiko eboluzio historikoari, erakundetzeari edota mugarri historikoei buruz hitz egiteko, baizik eta, baita ere, historiaren joan-etorrian, gipuzkoarrok gure gizarte bizitza eta bizimodua, ekonomia eta ongizatea, antolatu ahal izateko eraikitzen joan garen komunitate balioei erreparatzeko. Iragan kontuan izanda baina, batez ere, aurrera begira jarritan".

## Xabier Ezeizabarrena, Batzar Nagusietako lehendakaria

"Milurtekoa aukera izan daiteke iraupena erakusten diguten

eta gerora bultzatzen gaituzten balioak ikusteko. Gure historiako alderdi argitsuak baina baita ilunak ere, zer zaindu eta zer utzi erabakitzeke. Iraganak aurrera egiten erakusten baitigu". *Ipuscua* izenaren baitan euskara eta herria binomioan jarri zuen azpimarra: "Gipuzkoa bakarra da baina ez bakarrik izatekoa ez itxita aritzekoa. Euskaraz bizitzeak beste inorekin ez bezala elkartu du Gipuzkoa euskal lurraldeekin eta euskarak eman ditu Gipuzkoari Euskal Herrikoa dela jabetzea, beste lurraldeekin batean".

## Xabier Olano, Altzoko alkatea

Poza adierazi zuen, ospakizun garrantzitsuen aurrean, elkarlanean gauzatuko direlako milurtekoaren inguruko ekintzak. Altzoko herriak landuko dituen ekimenak xehetu zituen, lauak ere aipatutako agiri historikoaren edukietan jasotzen direnak, alkatearen esanetan: "Lehenik, emakumea, dohaintza egiten duena Gayla andrea delako, gipuzkoarra eta euskalduna; bigarrenik, dokumentuan bertan agertzen diren izenen artean, badira lau Altzokoak –hiru baserri eta mendi bat– eta horien aitortza egingo digu; hirugarrenik, dokumentuan gehien aipatzen den hitzetakoa sagarrondoak izanik, sagarrondoetan eta sagardogintzan azpimarra jarriko digu; eta, azkenik, donazio hori Iruñeako Erresumaren aurrean egiten denez, horrek ere pista bat ematen digu".

## Erakusketa San Telmo museoan, larunbatean hasita

Hainbat saio eta jardunaldi egin eta sustatuko dituzte datozen hamabi hilabeteotan. Hilaren 18an San Telmo Museoan inauguratuko den *Ipuscua*, 1000 urte erakusketa izango da. Donostiako San Telmo museoan, urtariletik maiatza bitartean, azken mila urteetan Askotariko ekintzetan lehena izango da.

**DUELA MILA URTEKO DA GAUR ARTE JASOTAKO GIPUZKOAKO LEHEN AIPAMEN IDATZIA**

**SAN TELMO MUSEOAN 'IPUSCUA, 1000 URTE' ERAKUSKETA ZABALDUKO DUTE, LARUNBAT HONETAN**